


HERNANI. EMAKUMEEN ETXEA

-2017-02-15. SAIO IREKIREN AKTA-

-ANTOLAKETA ETA IZENA-



BILERAREN XEHETASUNAK:

- Data: 2017-02-15
- Lekua: Beterri Garapen Agentzia
- Hasiera ordua: 18:00
- Amaiera ordua: 20:30

- ❖ Bertaratuak: 15 herritar
- ❖ Udal teknikariak: Maialen Apezetxea eta Irantzu Jauregi
- ❖ Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea.

1. AURKEZPENA

Irantzu Jauregi eta Maialen Apezetxeak saioari hasiera eman diote. Hernaniko Emakumeen Etxearen prozesuaren baitan antolatutako azken saioa izango da gaurkoa, eta bertan, antolaketa eta funtzionamenduaren gaiaren baitan sakontzen joango gara.

Maitane Barrenetxea Aztikerreko dinamizatzailleak gaurko saioaren gai ordena aurkeztu du ondoren:

1. Emakumeen Etxearen proiektua Kulturarteko Plaza Feminista izatera bidean emandako urratsen azalpen bat emango da lehendabizi. Horren inguruko iritzi eta sententzioak jasoko dira.
2. Ondoren, Emakumeen Etxean sortzea proposatzen den Asanbladaren inguruko funtzio eta koordinazio egiturak zehazten saiatuko gara.
3. Azkenik, prozesu osoan zehar landu dugun Izenaren gaiari helduko diogu.

2. EMAKUMEEN ETXETIK... ...KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTARA

Sentsazio eta iritziak jaso aurretik, Irantzu Jauregi teknikariak, prozesuaren hastapenetatik gaur arte emandako urratsen kronologia azaldu du.



Aurkezpenaren ondoren, bertaratutakoen iritzi eta ekarpenak jasotzeko tarte ireki da:

Zein sentsazio sorrazten digu? / ¿Qué sensación nos crea?

- Aldaketa nabarmena da batetik bestera, bai planteamendu aldetik, baita aldaketa kultural bat ere. Sentsazioa da erantzun artifiziala eman zaiola gaiari.
- Ideia batekin etorri ginen, prozesuak aurrera egin ahala, gaia lehertu egin zaigu eskuartean, eta kudeatzeko gaitasuna erakutsi da, gaiari heldu zaio eta irtenbide bat eman zaio.
- Aukera bezala ulertu behar dugu, hau da, gaur egun Hernanin egiten den feminismoaren lanketa modu batekoa da, eta espazioa konpartitzeak aukera berriak emango dizkigu feminismo hori anitzagoa izateko.

- Herri mugimenduaren artikulaziorako erreferentziazko gunea izango da. Berdintasun Kontseiluak arlo instituzionala lantzen duen moduan, asanblada honek eremu herritarra koordinatu, dinamizatu eta elkarlana sustatzea izango du helburu..
- Kulturarteko Plaza Feminista kokaturik, bertako lan eta antolaketa herri mailan eragitera iristeko estrategiez arduratuko da.
- Elkarte edo mugimendu ezberdinetako ordezkariak gain, norbanakoen parte hartzea sustatuko du.
- Hausnarketarako gunea izango da
- Elkar-ekintzak sustatzeko gunea izango da
- Erabakitzailea izango da (asanbladak berak erabakiko du aurrerago, bere antolaketa eta erabakiak exekutatzeko egitura)

Aurreko saioko edukietan sakontzea eskatu zaie galdera honetan. Erantzunak, hauexek:

- Gaur egungo koordinadora feminista asanblada honetan "diluitu"ko litzake
- Zalantza handiena, nola uztartu-bereizi Berdintasun Kontseilua eta Asanblada?
- Jende berria biltzearen erronka izango du
- Irradiatzea izan behar du bere funtzioetako bat: herriaren eta etxearen arteko lotura
- Kontseiluak Udalaren jardunaren gainean hitz egingo du; kontseilukideak asanbladan egotea proposatzen da
- Berdintasun Kontseilua urtez urte errealitate ezberdinetara egokitzen Joan da, eta kasu honetan ere, egokitzeko gaitasuna izango duelako ziurtasuna agertu da.

3. **Koordinazioa:** Nola koordinatu beste erabaki guneeekin?

- Berdintasun Kontseiluak ordezkari bat izango du asanbladan.

4. Asanbladaren **egituratzeaz:**

- Elkarte bat sortu
- Asanblada (antolaketa administratibo-legalik gabe)
-
- Koordinadora feminista asanblada izatera pasako da.
- Hitzarmenak egin daitezke edo dirulaguntzak jaso daitezke egitura formal bat izan gabe?

5. **Finantzabidea:**

- Diru laguntza bidez
- Autogestionatua (Nola? Lan ildoren bat marka daiteke?)
-

Ez da gaia lantzeko denborarik izan

LAIA	- Soinu polita - Sinplea (abizen konplikatua duelako) - Auzolanaren sinboloa	- Gasteizko jabekuntza eskolen izena - Agian "ezagunegia", erreferentzia asko
TXIPITITXONIAN*	- Festa, kalea, zarata, emakumeak kalean - "txipiti" dei diezaiokegu - Berezia	- Ahoskatze zaila - "Txoni" konnotazioa - Katxondeoa - Luzea
AMARAUNA	- Esanahia - Sarea - Emarauna ere izan daiteke	- Kaosa - Oso erabilia (Euskadi irratiko saioa + Bilguneren aldizkaria) - Zaila esaten
ELAIA	- Soinu polita - Motza	- Planoa, indarririk gabea - Ume izena
MANTTONI	- Soinu polita - Amoneri erreferentzia (emakume izena dirudi) - Konbinazioa: sagarra + izen propioa	- "tt" "tx" izateko arriskua - Esanahia, Goierriin
EMAIZEA	- Izen polita - Esanahia ere ondo	- Pastelon - Beste erreferentziak

BOZKETA:

Aurrera egin duten izenak baloratu ondoren, bozketa lan berriari ekin zaio. Lan honetan eman diren urratsak honakoak dira:

- Lehen bozketan, partaide bakoitzak gustukoak dituen izenak aukeratzeko galdegin da.
- Bigarren bozketan, boto kopuru gehien atera dituzten hiru izen proposamenak kontuan hartuta, izen zerrendatik zein kenduko luketen galdegin zaie.
- Hirugarren bozketa, bigarrena oso pareko joan denez, hiru izenetatik bat hautatzeko eskatu zaie.

IZENA	LEHEN BOZKETA (GUSTOKOENAK)	BIGARREN BOZKETA (DESKARTATZEKO)	HIRUGARREN BOZKETA (BAT AUKERATU)
ABAROA			
LEOKAIA	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●
EKHİNE	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●
LAIA	●		
TXIPITITXONIAN*			
AMARAUNA	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●	● ● ● ● ● ● ● ●
ELAIA			
MANTTONI	● ● ● ● ● ● ● ●		
EMAIZEA			

Hirugarren bozketaren ondoren, izen bakar baten aldeko jarrera garbirik ez da aurkitu, beraz, hiru izen horiekin lanketa egiten joatea erabaki da. Beraz, ez da izenaren inguruan erabaki bat hartu.

Gauzak horrela, Talde Eragileak erabakiko du hurrengo urratsak zeintzuk izango diren, baina saio ireki bidez erabakiko dela adostu da.

5.ITXIERA

Erabakirik hartu ez denez, beste saio bat egitea aurreikusten da. Horrez gain, saio honen ondoren, prozesua amaitutzat eman dela adierazi zaie partaideei.

Aurrera begira, Udaletik definitu diren urratsak honakoak dira:

- Obrarekin hasi beharra dago, eta lanketa hori, Udaleko arkitektoarekin hasia dago iada. Lehendabizi, proiektuaren pleguak atera behar dira, eta hori zehaztu ostean, obrari dagozkionak. Kalkulua da, gutxi gorabehera urtebeteko iraupena izango duela lan honek.
- Bestetik, obraren eta prozesuaren edukiak uztartzeko, Jarraipen Batzorde bat sortzeko aukera proposatu da. Lan talde honek, orain arte Talde Eragileak egin duen lanaren jarraipena egingo luke.

Egindako lanagatik eta saioan parte hartu izangatik eskerrak eman ondoren, saioa amaitutzat eman da otsailaren 15ean, arratsaldeko 20:30ean.